

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Egileak: Ane Lopez, Naia Eguia, Sofia Gomez eta Arai Biteri.

Gure proiektuaren zirriborroarekin hasteko, bezeroak ondo identifikatzearekin batera, oso garrantzitsua da negozio-ereduak funtziona dezan ahalbideratu dezaketen **hornitzaile-bazkideak identifikatzea**.

Utopiaren funtzezko elkarteen artean Uribe Kostako udalak izango ditugu, baina hauek ez dira gure bazkide bakarrak izango, honetaz aparte, bizikleta eta takilen dendekin harremanetan jarriko gara. Gauzak horrela, hauek izango dira gure aliatu printzipalak:

Batetik, Uribe Kostako udaletxeak izango ditugu aliatu, hauekin harremanetan jarrita bidegorrien erapenean eta hozkailu solidarioa aurrera eramaten lagunduko digute. Hauek zerbitzu publikoak izanda, edozein bezerok erabili ahalko dituzte eta dohanik izango dute haien erabilera. Beste hainbat aliatu behar izango ditugu, hau da, bizikleten salmentan zentratzen diren zenbait enpresa (aurrerago komentatuko ditugu zeintzuk diren). Horrela, takilak guk jarriko ditugu martxan, gure negozio ideia horretan oinarritzen baita. Honetarako, hurbilen ditugun elkarteekin/enpresekin harremanetan jarriko gara.

Gure proiektua aurrera ateratzeko, beste zenbait sozietateekin elkar arituko gara, hauen bidez, gure proiektua beste jendearengana iritzi dadin (hauxe aurrerago azalduko dugu).

Kontuan izanda, gure nahia **bisitan datozenen turistaren ongizatea** eta **erosotasuna** dela eta honekin batera kirola sustatzea, horrekin zerikusia duten zenbait elkarte/enpresekin aliatu ahal garela pentsatu dugu. Hala nola:

HERRIA	ALIATUA (enpresa publiko, pribatu edota elkarteak)	ALIATUEN DESKRIBAPENA
Gorliz, Plentzia, Sopela eta Getxo	Udaletxeak	Inguruko zenbait sektore publikoen laguntza onartzen dugu, honen laguntza behar baitugu gure proiektua aurrera eramateko. Hala nola, diru laguntzak.
Euskal Autonomia Erkidegoa / Bizkaiko foru aldundia	Bizkaiko Foru aldundia	Bizkaiko kostaldearekin hastea pentsatu dugu, beraz, hauen bidez, diru laguntzak eskuratuko ditugu.
Gorliz	CiclosGorliz	Gure herrietan bizikletak alokatzeko dendak izango ditugunez, bizikleta hauek enpresa honi erosiko dizkiogu. Horrela, herrietako komertzioa bultzatuko dugu. Beraiekin aliantza ezberdinak sortuko ditugu, herrietako komertzioa sustatze aldera.
Bilbo	Locker bilbao	Nolabaiteko aliantza egingo dugu, gure proiektua babestu dezaten. Izan ere, enpresa hau Bilbon kokatuta dago, gurea aldiz, Uribe Kostako herrietan. Beraz, beraiekin aliatuko gara elkar laguntzeko eta horrela takilen alokairua bultzatzeko.

Uribe Kosta guztiko biztanleria	Herritarrak	Biztanleria: haiek emango dute janaria edota hozkailuak.
Gorliz Plentzia Sopela Getxo	Kilimanjaro Bahia El peñon Tamarisess	Hainbat enpresarekin, zehazki jatetxeekin , egingo ditugu negozioak. Haiek janari soberakinak emango dizkigute hozkailuan sartzeko eta horrela nahi duenak eskuragarri edukiko du.
Gorliz Plentzia Sopela Getxo	Gorlizko ikastetxea Uribekostabhi Ander deuna Getxo1	Hainbat ikastolekin/institutuekin eta eskolekin, bereziki haien jantokiko enpresekin bat egingo dugu. Ikasleek lan boluntarioa eginez soberan dagoen janaria bildu eta hozkailuetan utziz. (Zentro bakoitzak asteko egun bat izango du zentroko soberakinak elkartzeko eta gela bakoitzeko ordezkariak edota hautatutako pertsonak janaria hozkailura eramango dute.)

- Ideia proiektu hau garatu ahal izateko: IES Uribe Kostako udaletxeen laguntzarekin bidegorria garatuko dugu. Baita, Bizkaiko Foru Aldundiaren onarpena beharko dugu. Zonalde honetan:



Bestalde, Utopia proiektuako lan taldeko pertsona bakoitzak, bere funtzioa izango du enpresan, hau da, bakoitza alor batez arduratuko da; baina arazoren bat izanez gero, talde guztia ahaleginduko da irtenbidea aurkitzen. Pertsona bakoitza trebea den horretaz arduratuko da. Bakoitzak, noski, erabakiak hartzeko eskubide berdinak izango ditugu.

Enpresa osatzen dugun jardule bakoitzaren rola zein den argi eta garbi aditzera emango dugu hurrengo taula honetan:

ARALBITERI SANCHEZ

Gorliz eta Plentzian jarritako zerbitzuetaz arduratuko da, hau da, hauek kontrolpean edukiko ditu. Hala nola, gure gmailen bitartez, bezeroek bidalitako kezkak edo galderak erantzuten arituko da eta herri hauetako bi lokal hauek zaintzeaz eta garbitzeaz arduratuko da.



SOFIA GOMEZ ELORDUY

Gure proiektuak dauzkan kostuak eta kontuak eramateaz jardungo da, hau da, Utopia enpresako kontabilitate arduraduna izango da. Baita, gure webgunea eta aplikazioa eramango ditu.



ANE LOPEZ DE MUNAIN HERNANDEZ

Ane, beste 2 herrietaz arduratuko da, hots, Getxoz eta Sopelaz. Bertan, gure gmailen bitartez bezeroek bidalitako kezkak edo galderak erantzuten arituko da eta bi lokal hauek zaintzeaz eta garbitzeaz arduratuko da.



NAIA EGUIA SOLAGAISTUA

Proposatutako jardueratan eta horiek funtzionarazteko behar diren baliabideak zehazten lan egingo du.

